

El modelo “lampedusiano” de transición de Urkullu: un modelo inadecuado, ineficiente e inviable.

ARABAKO MENDIAK ASKE! :: 04/10/2023

Un modelo “lampedusiano” (cambiar todo para que nada cambie) que sólo pretende mantener el sistema económico-social actual sin hacer los cambios que requiere nuestro planeta

[Euskara]

Urkulluren trantsizio-eredu "lampedusiarra": eredu desegokia, ez-eraginkorra eta bideraezina.

Duela egun batzuk, DemoSATH, Euskal Autonomia Erkidegoan (EAЕ) itsasoko ekoizpen eolikoko proiektuaren aurkezpen-ekitaldiaren esparruan, Armintzako kostaldearen aurrean, Lehendakariak adierazpen batzuk egin zituen; "B planetarik ez dugulako", trantsizio "bideragarri" baten bidez EAЕk energia berriztagarrien alde egindako apustu "argi eta irmoari" buruz mintzatu zen.

Aitzitik, Lehendakariak aurreikusten duen bideragarritasun bakarra aipatutakoaren kasako megaproiekturek Oligopolioko empresa handiei ematen dizkien gainbalio izugarriena da, Urkulluk eta bere gobernuak hain ondo defendatzen eta txalotzen duten trantsizio berriztagarriaren aitzakiarekin. Gainera, energiarekiko mendekotasuna "erabatekoa" dela gogorarazten digu, bizitzeko beharrezkoa delako, eta, horregatik, gogoeta egitera bultzatzen gaitu, nola eskuratuko dugun, eta energia sortzeko "bide egokiena" zein denaren inguruan.

Eskerrak eman nahi dizkiogu %100 berriztagarria izango den eredu baterako trantsizio energetikoaren bidea argiztatu digulako. Era berean, "bideragarri" bezala saldu nahi digun eta trantsizio energetikoaren esparruan energia elektrikoa sortzeko sistemen garapenaren eta hedapenaren eta eredu "Berriztagarri Elektriko Industriala"ren inguruko bere hitz jarioari erantzun nahi diogu. Urkulluk bideragarri bezala saldu/inposatu nahi digun eredu, ezeraginkor, bideraezina eta desegokia da.

EAEn energia berriztagarrien aldeko apustu "argi eta irmoa" aipatzen duenean, gogorarazi behar diogu hogeい urte badiela batzuk gizartea deskarbonizatzeko eta aldaketa klimatikoaren aurka borrokatzeko metodo gisa, %100ean berriztagarria izango den eredu baterako trantsizio energetikoa egin beharraz hitz egiten ari garela. Aldiz, EAEn energia berriztagarrien alde egindako apustu "argi eta irmoa" lurralte-plan baten estaldura juridikorik gabeko megaproiekturen (fotovoltaikoa eta eolikoa, batez ere) hedapen masibo bat besterik ez da. Energia Berriztagarrien Plan Sektorialak EAEn dauden lurralte eta ingurumen-mugen araberakoa behar du izan, hau da, ingurumen-eskakizunak betetzen dituena eta kulturaondarea, ingurune sozio-ekonomikoa, segurtasuna eta osasuna errespetatzen eta bermatzen dituena.

Megaproiekta hauek Europar Batasunaren NextGeneration programako laguntza handiak eskuratzea dute helburu, gizartearen deskarbonizazioa lortu eta klima-aldaketaren aurka borroka egin baino. Funts horiek, ez dezagun ahaztu, %50eko dirulaguntza eta beste %50a egunen batean itzuli beharko den kreditua dira.

%100 berriztagarria den eredu baterako trantsizio energetikoa ahalbidetzen duen energia sortzeko "biderik egokiena" zein izan behar den hausnartzeko ere eskatu digu Urkullu jaunak. A zer paradoxa! Izan ere, energia sortzeko modurik egokienaz hausnartu ez duena bere gobernu da eta, beraz, Urkullu jauna bera, bere ordezkari nagusi den heinean. Berak eta bere gobernuak inposatu nahi diguten trantsizio-eredu berriztagarria, Energia Berriztagarrien LAP baten ezinbesteko legezko estaldura ez duen eredua da, eta bai aldiz gaitzespen politiko-sozial zabala. "Berriztagarri Elektriko Industriala" deiturikoaz ari gara; energia berriztagarrietatik elektrizitatea sortzeko instalazio handiak, erabilera masifikatzea eta industrializatzea, eredu hori posible eta desiragarri den bakarra balitz bezala aurkeztuz, ez denean ez bakarra, eta are gutxiago desiragarria. Eta eredu honetan auto-kontsumoa baztertzen ez bada ere, "EAEk behar duen energia" ekoizteko, aerosorgailuen eta plaka fotovoltaikoen makroinstalazioak instalatu behar direla argudiatzen digute beti.

Hau da azken batean, eredu "lampedusiarra" (dena aldatzea, ezer alda ez dadin). Eredu honek egungo sistema ekonomiko-sozialari eutsi nahi dio, gure ustez beharrezkoak diren aldaketak egin gabe, planeta leku bizigaitza bihur ez dadin beharrezkoak diren aldaketak (energia aurreztea, neurrigabeko kontsumoa saihestea, garraio publikoaren aldeko apustu irmoa, distantzia guztietan, gure ingurune naturalaren eta biodibertsitatearen benetako babesea, gure nekazaritza-ondarearen babesea, etab.)

Urkullu, eredu desegokia eta ez-eraginkorra inposatzeko nahian, gezurretan ari da. Ekoizpenzentro handietan (industria-eremu edo eskualdetan) eta kontsumo-gune handietan (hiri handiak) oinarritua dagoen gaur egungo sistema sozioekonomikoa mantentzeko eredua, energia berriztagarri kantitate handiak metatuz mantendu nahi dena. Beste era batera esanda, energia berriztagarria, definizioz sakabanatua eta banatua, energia kontzentratuan bihurtzea. Kontsumo-zentro handiek behar duten segurtasun energetikoa bermatzeko eredu bat inposatu nahi digute, nahitaez, erabat ez-eraginkorra dena.

Desegokia eta ez-eraginkorra izateaz gain, eredu hau bideraezina da argi eta garbi; materialik ez dagoelako, ez aerosorgailuak eta plaka fotovoltaikoak fabrikatzeko bakarrik, ezta bateriak, motor elektrikoak eta abar fabrikatzeko ere, trantsizio-eredu berriztagarri honen funtsezko elementuak direnak. Zaragozako Unibertsitateko Alicia eta Antonio Valeroren lanek eta Energiaren Nazioarteko Agentziaren material kritikoen 2021eko maiatzeko txostenak horrela adierazten dute. Bideraezintasun hori agerian geratzen da jakinik elektrizitatea azken energiaren %23 baino ez dela (kontsumitua izateko prest dagoen energia).

Beraz, energia-kontsumoaren %70 baino gehiago ez da elektrikoa, eta, gainera, zaila da, askotan ezinezkoa ere, elektrifikatzea. Hori dela eta, eredu horretan oinarritutako trantsizio berriztagarria egin nahi izatea falazia bat da, gaur egun ez ditugun eta behar bada inoiz izango ez ditugun teknologiek salbatuko gaituztela pentsatzea da.

Eta gezurretan ari zaizkigu, halaber, ezkutatzen digitelako energia berriztagarriak

hedatzeko egungo planek ez dutela zentzurik finantzen ikuspegitik, beraien errentagarritasun ekonomikoa zalantzan dagoelako, izan ere herrialde industrializatu gehienetan eta horien artean EAEn elektrizitatearen kontsumoa gelditu egin baita. Errentagarritasun finantzariorik eza, materialen krisiarekin batera, aerosorgailuen eraikuntza-konpainia askok sorgailu bakoitzeko dirua galtzea eragiten ari dena eta, horren ondorioz, Vestas, Nordex edo Gamesa bezalako konpainiek lantegiak itxi dituzte, mundu osoan eta, bereziki, Espainiako estatuan. Beraz, Berriztagarri Elektriko Industrialen hedapen masiboa finantzatzen ari gara, aprobetxatu ezin dugun eta gure energia-krisia konponduko ez duen energia ekoizteko, kapital hori erresilienteagoak, premiazkoagoak eta beharrezkoagoak diren beste azpiegitura batzuetan inbertitu beharrean.

Beraz, aurrekoa ikusita, galdera hauek egin nahi dizkizugu:

Zergatik tematzen zarete energia elektriko berriztagarria ekoizteko megainfraegituren garapenean, aprobetxatu ezin badugu eta gure energia-krisia konponduko ez badute?

Zergatik tematzen zarete aipatutako proiektuekin natura-ondarea suntsitzen, horrek dakarren biodibertsitatearen galera konponezinarekin?

Zergatik ez da inbertitzen NextGeneration programako laguntzen kapitala erresilienteagoak, premiazkoagoak eta beharrezkoagoak diren beste azpiegitura mota batzuetan?

Milioi askoko mozkinak sortzen dituzten, tokiko komunitateentzat itzulera oso txikia duten, lurraldean ingurumen-kalte itzulezinak eragiten dituzten, eta berezko jabeei lurrik kentzen dizkieten megaproiektu hauen "Interes Orokorra" non dago?

Zergatik, Urkullu jauna, ez duzu benetako ONURA PUBLIKOA zure "Interes Orokorraren" gainetik jartzen, eta ez diozu uko egiten ez bidezkoa, ez soziala, ez legezkoa, ez iraunkorra, ez ekologikoa, eta beraz, DESEGOKIA, EZ-ERAGINKORRA ETA BIDERAEZINA den zure transizio energetiko eredu honi?

2023/10/04 Arabako mendiak aske

[Castellano]

El modelo “lampedusiano” de transición de Urkullu: un modelo inadecuado, ineficiente e inviable.

En el marco del evento de presentación del proyecto DemoSATH, proyecto de producción eólica marina flotante en la Comunidad Autónoma Vasca (CAV), frente a la costa de Armintza, el lehendakari ha realizado unas declaraciones sobre la apuesta “clara y decidida” de la CAV por las energías renovables a través de una transición “viable”, porque “no tenemos un planeta B”.

Sin embargo, es evidente que la única viabilidad que contempla el lehendakari es la de las enormes plusvalías que megaproyectos como el arriba mencionado generan a las grandes empresas del oligopolio, con la excusa de la transición renovable, y que tan bien defienden y

aplaudan Urkullu y su gobierno. Además, en un ejercicio de absoluta generosidad, nos recuerda que la dependencia de la energía “es absoluta” porque es necesaria para vivir y, por ello, nos insta a reflexionar sobre cómo se va a acceder a ella y cuál es la “vía más adecuada” para generarla.

Desde aquí, queremos darle las gracias por ilustrarnos/iluminarnos en el proceloso camino de la transición energética a un modelo 100% renovable y, asimismo, responder a su soflama, en torno al desarrollo y despliegue de sistemas de generación de energía eléctrica en el marco de la tan cacareada transición energética y al modelo “Renovable Eléctrica Industrial” que nos pretende vender/imponer como “viable”, modelo a todas luces inadecuado, ineficiente e inviable.

En relación a su afirmación sobre la apuesta “clara y decidida” de la CAV por las energías renovables, recordarle que hace ya un par de décadas que venimos hablando de la necesidad de hacer una transición energética a un modelo 100% renovable como método para descarbonizar la sociedad y luchar contra el cambio climático. Sin embargo, la “clara y decidida” apuesta de la CAV, se centra en un despliegue masivo de megaproyectos de producción de energía renovable (fotovoltaica y eólica principalmente) a lo largo y ancho de nuestro territorio, sin contar con la cobertura jurídica de un Plan Territorial Sectorial de Energías Renovables que regule y ordene la instalación de infraestructuras de fuentes de energías renovables en función de las limitaciones territoriales y ambientales existentes, es decir, con la garantía de cumplir las exigencias medioambientales y el respeto a la preservación del patrimonio cultural, el medio socio-económico, la seguridad y la salud.

Megaproyectos que, más que descarbonizar nuestra sociedad y luchar contra el cambio climático de manera decidida, buscan acceder a las cuantiosas ayudas del programa NextGeneration de la Unión Europea. Unos fondos que, no olvidemos, son en un 50% subvención, pero el otro 50% crédito que algún día habrá que devolver.

El señor Urkullu también nos insta a reflexionar sobre cuál debe ser “la vía más adecuada” para generar la energía que haga posible la transición energética a un modelo 100 % renovable. ¡Menuda paradoja!, porque, precisamente, quien parece no haber reflexionado sobre la manera más adecuada de generar energía es su gobierno y, por ende, él, como su máximo representante. Porque el modelo de transición renovable que, él y su gobierno, nos pretenden imponer es un modelo que no cuenta con la imprescindible cobertura legal de un PTS de Energías Renovables y sí con un amplio rechazo político-social. Estamos hablando del denominado “Renovable Eléctrica Industrial”, que se caracteriza por la instalación de grandes plantas de generación de electricidad a partir de energía renovable, con la intención de masificar e industrializar su uso, como si este modelo fuera el único posible y deseable, cuando ni es el único posible y mucho menos el deseable. Y si bien en este modelo no se descarta el auto-consumo eléctrico, siempre se nos argumenta que, para producir “la energía que necesita la CAV”, es absolutamente preciso instalar macroinstalaciones de aerogeneradores y de placas fotovoltaicas.

En definitiva, un modelo “lampedusiano” (cambiar todo para que nada cambie) que sólo pretende mantener el sistema económico-social actual sin hacer los cambios -absolutamente necesarios- que requiere nuestro planeta para que no se convierta en un lugar inhabitable

(ahorro energético, evitación del despilfarro, apuesta decidida por el transporte público en todo tipo de distancias, protección real de nuestro medio natural y su biodiversidad, protección de nuestro patrimonio agrario, etc.)

Urkullu, además, nos miente al querer imponernos un modelo inadecuado e ineficiente. Un modelo con el que sólo se pretende concentrar grandes cantidades de energía renovable, para mantener el sistema socio-económico actual basado en grandes centros de producción (zonas o regiones industriales) y grandes centros de consumo (grandes ciudades). En otras palabras, concentrar grandes cantidades de energía renovable, que por definición es dispersa y distribuida, y transformarla en energía concentrada para garantizar la seguridad energética que los grandes centros de consumo requieren, proceso que, por fuerza, es totalmente ineficiente

Además de inadecuado e ineficiente, este modelo es, a todas luces, inviable por la falta de materiales, no sólo para la fabricación de aerogeneradores y placas fotovoltaicas, sino también de baterías, motores eléctricos, etc. todos ellos elementos clave de este modelo de transición renovable, tal y como atestiguan los trabajos de Alicia y Antonio Valero de la Universidad de Zaragoza y el informe de materiales críticos de la Agencia Internacional de la Energía, de mayo de 2021. Inviabilidad que queda patente si reparamos en que la electricidad representa sólo un 23% de la energía final (energía lista para ser consumida).

Por tanto, más de un 70 % del consumo de energía se hace de forma no eléctrica y, además, de difícil, incluso imposible, electrificación. Por ello, pretender hacer la transición renovable basada en este modelo es una falacia, es asumir que contaremos con unas tecnologías que hoy por hoy no están disponibles y que posiblemente nunca lo estén.

Y también nos mienten porque nos ocultan que los actuales planes de despliegue de energías renovables no tienen sentido desde el punto de vista financiero, pues tienen una rentabilidad económica más que dudosa, por el estancamiento del consumo de electricidad en la mayoría de los países industrializados y entre ellos la CAV. Falta de rentabilidad financiera que unida a la crisis de materiales están provocando que muchas compañías constructoras de aerogeneradores pierdan dinero por cada generador fabricado, y eso ha hecho que compañías como Vestas, Nordex o Gamesa hayan cerrado fábricas por todo el mundo y particularmente en el estado español. Por tanto, estamos financiando un despliegue masivo de plantas de Renovable Eléctrico Industrial para producir una energía que no podemos aprovechar y que no solucionará nuestra crisis energética, pudiendo invertir ese capital en infraestructuras más resilientes, necesarias y provechosas.

Entonces, y visto lo anterior, queremos formularle las siguientes preguntas:

¿Por qué se empeñan en el desarrollo de megainfraestructuras de producción de energía eléctrica renovable para generar una energía que no podemos aprovechar y que, por otra parte, no solucionará nuestra crisis energética?

¿Por qué se empeñan en destruir buena parte del patrimonio natural, con la irreparable pérdida de biodiversidad que ello supone, con los antedichos desarrollos?

¿Por qué no se invierte el capital de las ayudas del programa NextGeneration en otro tipo de

infraestructuras más resilientes, más urgentes y más necesarias?

¿Dónde está el “Interés General” de estos megaproyectos que expropian las tierras a sus propietarios al tiempo que generan beneficios millonarios con un retorno ínfimo para las comunidades locales y provocan daños medioambientales irreversibles en el territorio?

¿Por qué, señor Urkullu, no antepone la verdadera UTILIDAD PÚBLICA a su “Interés General” y desiste de un modelo de transición energética que ni es justo, ni social, ni legal, si sostenible, ni ecológico, y por tanto, INADECUADO, INEFICIENTE e INVIABLE?

04/10/2023 Arabako mendiak aske

<https://eh.lahaine.org/el-modelo-llampedusianor-de-transicion>